Teilatuko lizarra

Koldo Izagirre

poesia Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2006 Koldo Izagirre
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2006ko apirila
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

EDITOREAREN OHARRA

Idatziak oro, eta poesiak bereziki, badauka bere musika, edo musikaltasuna: kadentzia batean esaten zaizkigu esatekoak, beren motelaldi eta arinaldiekin; kakotxak eta puntuak isilaldi labur eta luzeak ditugu... eta noski, hizkuntza guztiak dira hots-sistema konplexu samarrak, alegia, aberatsak. Honek ez du esan nahi poema batek *berea* ez den beste musikarik onar ez dezakeenik. Testuaren musikaltasuna gorabehera, kantagarri izan zitekeela uste ez genuen poema mordoa kantatzen dugu. Eskultoreak materiari bezala, testu-masari forma kendu dio musikariak, kantariak.

Idatzia, poema, musikagarria da. Baina kantua, irakurgarria ote da?

Musikak poemaren beste alderdi bat erakusten duen bezala, irakurketak kantuaren dimentsio berri bat erakusten digu musika erantzitakoan. Har deza-

gun balada bat, irakur dezagun astiro: narrazio luzearen mailakatze bera dauka, nobela luze bat da, elipsian emana. Har dezagun kopla zahar bat, gure lirikaren irudi ederrenetakoak utzi dizkigute egile anonimoek.

Kantuan, idatziak ahozkotasunera hurbildu behar du, bestela oso gutxitan kontuan hartzen diren aldaerak zaindu behar dira: hitzen arteko loturak, kontsonante-bokalen oreka, barne-etenak... Esangarria izan behar du aurrena testuak, kantatu ahal izango bada. Letragintza, beraz, genero literario berezia bihurtzen da. Bere legeak ditu; hobeto esanda, bere printzipioak. Genero apala da, artisautza nahi baduzue, baina ez horregatik erraza. Apalean bertan zaila, errazkeriaren arriskua daukana.

Askotan menostu egin den genero honen adibidea dugu *Teilatuko lizarra* liburuan proposatzen duguna: Koldo Izagirrek hogeita hamar urtetik hona argitaratutako kantu eta kantugaiak, eta gordean zeuzkan beste hainbat letra berri. Sehaska kantu xaloak eta

gaiztoak, blues malenkoniatsuak, baladak, koplak... denetarik aurkituko duzue hemen, eta baita ere kantu kultua esan genezakeena, frantsesek *chanson à paroles* esaten dutena, kantu berbadunak, “zer edo zer” molde jasoan esaten duten parolak, letrak.

Joseba Tapiarentzat,
koplatzeak ematen dizkidan lanak
aipatzen dizkiodan aldiro
perfekziokeriaren arriskuaz jardunda
kontsolatzen nauelako eta, ondoren,
soinua jotzen hasten delako alegia deusez,
notak eskura baletozkio bezala.

BALDINTZA SUBJEKTIBOAK

Itsas handiak ahoa zabal
portutik urrun irtenda
mundu berririk ez dago eta
loturik hobe omen da
halere bihotz duenak badu
barkua non bete berba

arruta sarri huts egin ohi dut
oker zuzenduta lema
ahula baita bizi-faroa
argitzen duen linterna
halere garaiz ikasi nuen
barkua non bete berba

orratza galduta nork dezake
portu onean azerta
laguna uste nuenak maiz du
nire kontra jo alerta
halere beti aurkitu ohi dut
barkua non bete berba

munduko zazpi putzu gaziak
ez dira inoiz ur bera
gu garamatzan ontziak orain
gorria dakar ubera
halere jator eskaintzen dizut
nik barkua bete berba

hautsiko zaigu erdiko masta
urratuko zaigu bela
beldurrak digu bilakatuko
ahoa hitzen logela
halere ez dut galtzen utziko
nik barkua bete berba

itsas hondotik datorren baga
harkaitzak lezake ema
inoiz isilduko ez nautenik
ez dezaket zinez berma
halere beti ekarriko dut
nik barkua bete berba

1997

Musika: Francisco Garcia Alvarez

ZURETZAT

eguzkia eskuetan hartu
eta intxaur azala kraskatu
zuretzat
zuretzat

ene poemak erre
eta keak hitzak dibuja ditzan utzi
zuretzat
zuretzat

eskuak ikus diezazkiozun
elektrikari tiranteak ebatsi
zuretzat
zuretzat

gauaren bizkar bustiaz
pertxero bat egin
zuretzat
zuretzat

zapataren lokarriaz
itsasoak itzal batean bildu
zuretzat
zuretzat

zuretzat
ezagutzen ez dituzun
mila zuretzat

1976

ERAIKUNTZA GREBAN

aztoramen handi batek hartua du hiria
eraikuntzak duelako gaur erabaki greba
nekatua omen dago uztarriko idia
bat eginik daude orain Bizkaia eta Magreba

gorriz behar da markatu egutegian data
eraikuntzak duelako gaur erabaki greba
beherago ezin omen bertan gora soldata
bat-batean lana dute laga bertan behera

hiria museo dugu eskurik bako harri
eskorga pala plomada pikotxa mila tresna
umezurtz gelditu dira guztion ikusgarri
eraikuntzak duelako gaur erabaki greba

inork ez daki zergatik baina denok dakigu
eraikuntzak duelako gaur erabaki greba
bihar izanen garela munstro baten gatibu
hiri osoan haserre ezkutu bat erne da

trafikoa moteldu da lanera heldu ezin
eraikuntzak duelako gaur erabaki greba
amodiozko hitzordu mordoa da huts egin
horrelaxe dute pizten alferrek beti gerla

paretak beteak daude pintaketaz afixez
eraikuntzak duelako gaur erabaki greba
piketeak hor dabiltza amenazuzko hitzez
halakoz beteko balitz Siberiako trena

hodei beltzez estali da hiriaren sabaia
eraikuntzak duelako gaur erabaki greba
ez lege barruko greba baizik opor salbaia
mila eta bat barrikada goiz honetan erre da

langileek utzi naute malenkoniak jota
gai baitira obratzeko nik atzo egin ametsa
tristuraz gaixorik nago ezer ez zait inporta
eraikuntzak duelako gaur erabaki greba

2005

KAPRITXO ZAILA

beti nahi izan nuen koplaka ikasi
lanbroak itsutzen du gure bokalea
alferrik daude orain talaiko banderak
ingudean mailuak eguna du hasi

beti nahi izan nuen koplaka ikasi
ortzadarra sortu du fuelak uretan
gaur ez du beste deusik umeak gogoan
hizkuntza arrotzean ezin du idatzi

beti nahi izan nuen koplaka ikasi
txintxorroen lotura erraz lasaitzen du
hondoko baga beltzak azpitik jotzean
kardala baretzeko neu nago moilarri

beti nahi izan nuen koplaka ikasi
entzuten nuenean Abante gustixe!
urtu egiten nintzen uberari beha
zer pentsatu ohi nuen neuk ere ez dakit

beti nahi izan nuen koplaka ikasi
zuhaitzik ederrena ontzi baten masta
Matzakuko parolak zazpi segundoro
nire bihotzak baino lasaiago argi

1997

NI GIZON ERGELA NAIZ

ni gizon ergela naiz ta
—hala haiz tamalez!
ni gizon ergela naiz ta
aurkitu nahi dut egia
—hori baietz!
—hori baietz!
aurkitu nahi dut egia
estropozotan daramat
nire bizitza erdia

ni gizon zuria naiz ta
—hala haiz tamalez!
ni gizon zuria naiz ta
ez dut esaten gezurrik
—hori ezetz!
—hori ezetz!
ez dut esaten gezurrik
haritzak ez du ematen
nire gustuko ezkurrik

ni gizon motela naiz ta
—hala haiz tamalez!
ni gizon motela naiz ta
laburra daukat urratsa
—hori baietz!
—hori baietz!
laburra daukat urratsa:
banderapean joateko
ez naiz eraman erraza

ni gizon epela naiz ta
—hala haiz tamalez!
ni gizon epela naiz ta
ez nau berotuko suak
—hori ezetz!
—hori ezetz!
ez nau berotuko suak
ez ditut beti aditzen
aberriaren mezuak

ni gizon itsua naiz ta
—hala haiz tamalez!
ni gizon itsua naiz ta
maite ditut beltzaranak

—hori baietz!
—hori baietz!
maite ditut beltzaranak
librea nahi omen zuen
Kuba Sabino Aranak

ni gizon gorria naiz ta
—hala haiz tamalez!
ni gizon gorria naiz ta
ez daukat barkamenikan
—hori ezetz!
—hori ezetz!
ez daukat barkamenikan:
arbola han dago baina
basorik ez da Gernikan

ni gizon mutua naiz ta
—hala haiz tamalez!
ni gizon mutua naiz ta
ikasi nahi dut bertsotan
—hori baietz!
—hori baietz!
ikasi nahi dut bertsotan
musu bat emango dizut
hartzen banauzu besotan

ni gizon lotua naiz ta
—hala haiz tamalez!
ni gizon lotua naiz ta
ez dut onartzen katerik
—hori ezetz!
—hori ezetz!
ez dut onartzen katerik
ez da sortu ni isildu
nazakeen alkaterik

1995

Musika: Natxo de Felipe

LA VACHE QUI RIT

batzuetan zizarea da
zizare luze bat
zelaiaren erdian buztan

bestetan satorra da
sator jator bat
lurraren barnetik mutur

zizare edo sator
harrituta
behatzen dio beti
trenak
behiari

—behi bat...!
tristura kentzeko
esne gaingabetua
agintzen duen medikuak

—behi bat...!
billeterik gabe
ibiltzen den haurrak

—behi bat...!
natur zientzietako azterketak
zuzentzen datorren irakasleak

esnetan dira treneko bidaiariak
behi bat
—dena buztan dena mutur—
ikusi dutelako

—behi bat...!
behi bat...!
behi bat...!

esnatu egin da gidaria
izutu egin da gidaria
behi bat?
berak ez du behirik harrapatu nahi!

—behi bat...!
behi bat...!
behi bat...!

gidariak ez du harrapatu nahi
behirik:
gero lasterka ibili beharko du
amets gaiztoan
geltokiz geltoki gelditu gabe
zezenen aurretik

stop..!
stop...!
stop...!
topa
egin du trenak
bere buruarekin
topo

zizarea bazen labur
satorra bazen uzkur

eta oraindik ere
harrituta
behatzen dio
trenak
—dena burdin dena tutu—
behiari
—dena gordin dena titi—

nola egiten duen orduan
behiak
irri!

2003

NIRE IBAIA

nire ibaia ez dator itsasora
nire ibaia ez da ibai
inoizko ubidea
kantari ez dakien erretena
ur mehea dakar baina
leporaino hartzen nau

nire ibaia ez dator itsasora
nire ibaia ez da ibai
erreka ahuspeztua
izar bakarreko ispilua
ez nau hezatzen baina
busti egiten nau

nire ibaia ez dator itsasora
nire ibaia ez da ibai
ezin ditu bi bazter
lizarrik gabeko errekaldea
ez dakit nora baina
eraman egiten nau

nire ibaia ez dator itsasora
nire ibaia ez da ibai
egarriaren lotsa
hodei nekatu baten malura
ez nau asetzen baina
ito egiten nau

* * *

nire ibaia ez dator itsasora
nire ibaia ez da ibai
bere buruaren txalupa
itsaso izan nahi luke
nire ibaia ez da ibai baina
nire ibaia ez dator iturrira

1989

Musika: Imanol

BASATZETAKO URRETXINDORRA

bere buruaz lotsa zatar ez bestea
arin ezkutatzen da ikarak apoa
somatzen baldin badu inoren pausoa
gorrotagarri zaio ilargi betea

beldurtu egiten da apotxoa zinez
harri baten azpian gorderik ardura
edo baldarki jausiz sortu den putzura
hanka egin behar du zu maita ezinez

apo, apo
isilik hago!
hire maite ederra
lotan baitago

korroka honek izan nahi luke hitza
maiteminez daudenen hasperen mingotsa
apo lotsati hori neu nauzu bihotza
maluros bizi naizen bufo vulgarisa

ilargitik mundura kantu bat tristerik
zureganaino hegan ametsez hor doa
ene kontra altxatzen baduzu orpoa
xangrinez hilen nauzu zanpatu gaberik

apo, apo
isilik hago!
kantari ematen duk
itsusiago

zatarra izatea omen da bekatu
huts horrek egiten dit ariman zarrapo
zu edertzeko baina sortu nintzen apo
kantari nahi didazu orain debekatu?

badakit ez zarela zu horren doilorra
nazka eman badizu nik daukadan antzak
liluratuko zaitu ene kantu latzak
ni naiz basatzetako ai urretxindorra

apo, apo
isilik hago
ene zapatapean...
hi hilik hago!

1998

Musika: Joseba Tapia

ZORAGARRIA EZ AL DA?

agur lagun agur mundu
agur ikusle samalda
asmo zoro batek nakar
ez zaiteztela asalda
mundutik alde eginda
mundua liteke alda
zoragarria ez al da?
bidegorrian aztalka!

haize kontra noa zuzen
oker haizeak buruan
aspertuko haiz lehenago
lagun denek inguruan
nire asmoak ez omen
ez buru eta ez hanka
zoragarria ez al da?
bidegorrian aztalka!

oker haizez dut egina
aspaldi gaitzeko meta
meta hartara noa ni
izan arren... Tourmaleta!
bide lau samur berdina
baino nahiago dut malda
zoragarria ez al da
bidegorrian aztalka?

ordokian ere beti
nabilela malda gora
badakit zaila dudala
arribatzea inora
baina ez dut zertan etsi
zurekin eginen dut talka
bidegorrian aztalka
zoragarria ez al da?

trazatutako bidean
gogait egiten dut guztiz
noraezean naiz joaten
arauak aldera utziz
orduan zer ikusten da?
buru bat eta bi hanka
bidegorrian aztalka
bidegorritik irtenda!

egunsentian aztalka
arrastirian aztalka
gau eta egun aztalka
gelditu gabe aztalka
buru bat eta bi hanka
zoragarria ez al da?
        bidegorrian...!

haize barruan aztalka
euri azpian aztalka
elur gainean aztalka
eguzkiraino aztalka
buru bat eta bi hanka
zoragarria ez al da?
        bidegorrian...!

biderik gabe aztalka
gurpilik gabe aztalka
galgarik gabe aztalka
katerik gabe aztalka
buru bat eta bi hanka
zoragarria ez al da...?
        bidegorrian...!
        gorribidean...!

2005

Musika: Joseba Tapia

PORTUKOPLAK

aitortzen dizut portua dela
nire aberri bakarra
aitortzen dizut portua dela
nire aberri bakarra
hantxe daukat nik lastre handian
oroitzapenen gabarra

atako banda jo du txalupak
umearen begipean
atako banda jo du txalupak
umearen begipean
tanta gozo bat itsasorako
hari agur egitean

ontzi guztiei diosala ta
tristura bat bihotzean
ontzi guztiei diosala ta
tristura bat bihotzean
izen arrotzek herdoil zauriak
bidaia gaitzen ostean

baforearen tximinietan
ez da izozten elurrik
baforearen tximinietan
ez da izozten elurrik
portu batean jaioak ez du
bide berrien beldurrik

letrak esaten ikasi nuen
ontzi arrotzen branketan
letrak esaten ikasi nuen
ontzi arrotzen branketan
izen gazien ozentasunak
munduramina hanketan

txikotak largatzen zirelarik
gaixotzen nintzen saudadez
txikotak largatzen zirelarik
gaixotzen nintzen saudadez
faroen segak oraindik ere
hil egiten nau gaudadez

draga handiak ezin du hustu
itsas hondoko taberna
draga handiak ezin du hustu

itsas hondoko taberna
itoen loa hautsi du eta
laster joko du galerna

munduak ongi daki naizela
euskaldun seme jatorra
munduak ongi daki naizela
euskaldun seme jatorra
Txipreko ontzi baten banderaz
egina daukat atorra

zazpi bandera zazpi mintzaje
nire aberri bakarra
zazpi itsaso zazpi zohardi
nire aberri nabarra
portuak beti digu amore
kaian urtzen da aparra

tristea baita gau ilunean
baforearen tutua
tristea baita gau ilunean
baforearen tutua
oroituz egin dizudan kopla
tristuretan da gautua

1997

ETA EGUNERO DUGU BEZPERA

azkenak baitakar hurrena
makurrak baitakar argia
hurrenak baitakar beldurra
hasteak baitakar zuzena
zubiak baitakar larria
urratsak baitakar mentura

helduko dela
helduko dela
eta egunero dugu bezpera

osoak baitakar erdia
buruak baitakar zalantza
beroak baitakar lausoa
okerrak baitakar egia
zalantzak baitakar arnasa
barruak baitakar auzoa

helduko dela
helduko dela
eta egunero dugu bezpera

bihotzak baitakar ikara
nekeak baitakar asmoa
gordinak baitakar heldua
ikarak baitakar itzala
usteak baitakar harroa
eskuak baitakar eskua

helduko dela
helduko dela
eta egunero dugu bezpera

2006

APOAREN AMORRUA

putzuz putzu nabilela
amorruan puztuta
dinostan igela
amorruan puztuta
patxadari naun aspaldion
emana gibela

malko garratzenen ura
dator ene putzura

jauzika zakinat oinez
amorruan jauzika
urrunaren minez
amorruan jauzika
pausoz pauso hobe nukeela
ez nezaken sinets

malko zintzoenen ura
dator ene putzura

zikina dinat aztarna
amorruan zikina
bideetan barna
amorruan zikina
ni ez bainaun lotsa sartzeko
gorotzetan hanka

malko garbienen ura
dator ene putzura

gainezka dinat likina
amorruan gainezka
igelen higuina!
amorruan gainezka
izerditu gabe ez nagon
ni libro egina

malko ederrenen ura
dator ene putzura

apalik nabilen pozez
amorruan apalik
dinonat bihotzez

amorruan apalik
munduak ni beharrago nain
hi baino askozez

malko beroenen ura
dator ene putzura

zakarra naun ni larruan
amorruan zakarra
azal ‘ta barruan
amorruan zakarra
halere gozo ikasiko dun
nirekin marruan

malko eztienen ura
dator ene putzura

korroka egin dinat hitz
amorruan korroka
zenbait mezu likits
amorruan korroka
ez ninake hain garbi egingo
berbaduna banintz

malko gordeenen ura
dator ene putzura

1998

Musika: Joseba Tapia

TXORIA ZEGOEN KANTARI

txoria zegoen
hosto artean moko
txoria zegoen kantari
harriak noiz joko

txoria zegoen
moko betean txistu
puntaren puntan
txoria zegoen kantari
harri bidean itsu

txoria zegoen
txistu artean gozo
adarraren puntan
txoria zegoen kantari
harriak noiz joko

txoria zegoen
harri bidean itsu
zuhaitzaren adarrean
txoria zegoen kantari
kontu zaharren berritsu

txoria zegoen
harriak noiz joko
aldapeko zuhaitzean
txoria zegoen kantari
adarrik gabeko hosto

txoria zegoen
puntaren puntan
adarraren puntan
aldapeko zuhaitzean
txoria zegoen kantari
hosto artean moko

orduan sortu zen
hosto artean
        moko betean
txistu artean
        harri bidean

sagarra:

harriak hura zuen jo

txoriak guri

ziezagun jo

...

(horixe!)

2004

ZUEK EZ DAKIZUE

Zuek ez dakizue zer den
gauero kalenderaren numero bat tatxatzea
eta ilun-jarioari
tiro ezin emana

zuek ez dakizue zer den
norbaitek igurikiko digula
sinetsi nahi izatea

zuek ez dakizue zer den
gizonaren negarra
ilunabarra kopetari atxikitzen zaionean

zuek ez dakizue zer den
euria

zuek ez dakizue zer den
bakarrik egotea
bakarrik
bakardaderik ere gabe

zuek ez dakizue zer den ezer

zuek ez dakizue ezer

1976

Musika: Joxe Portela

ZORIONTASUNA HERRI BAKARREAN

ez ezazuela ezetz esan
oraindik badago mundu honetan
zapaldu gabeko uharte bat
inor ez da handik itzuli hori da froga
gure zain zabal etzana
urrun

suntsimenduaren minenean
eta garaitzaren zoroenean ere
ez ezazuela ezetz esan
nork ez du amets debekatua egin
borrokatu behar honetarik
urrun

naufragiorik zinikoena antolatuko dugu
Cromagnongo bizkaitarrak bezain
zoriontsu bizi ahal izateko
ez ezazuela ezetz esan
aberri guztiez biluzik
urrun

eta noizbait lanbroaren erdian
azalduko zaigu anker
uharte urrunenaren bila datorren ontzia
aberri bat daukagula erakusteko
ez ezazuela ezetz esan
hurren

1997

LOIOLAKO PORRUSALDA

Azpeitiko mutila
Inazio donea
zenbait atso gazteri
jasoa gonea
ai zer gonorrea
Inazio donea

herriaren lepotik
mila marabedi
Loiolatarren kasta
madarika bedi
besteren izerdi
mila marabedi

Oinaztarren mutila
han aurrean doa
Gaztelaren pausoan
oina ta zangoa
ederra mandoa
han aurrean doa

Iruñan hartu zuen
zangoko herrena
Nafarroa salduta
etsaia barrena
ez du okerrena
zangoko herrena

begira nola doan
aldarera herren
apostoluetatik
jarria da hurren
Infernuko Txerren
aldarera herren

orduan sortu zuen
Jaunaren armada
munduko gerra zikin
guztien ama da
inon beltzik bada
Jaunaren armada

Jainkoaren aldeko
beso armatua
dolarrak aspaldian

ongi xarmatua
ustel xamartua
beso armatua

Loiolan ageri da
eder basilika
zeruko zergazainek
sakela kilika
Kristo zintzilika
eder basilika

hizketa leuna du
Kristoren morroiak
sotanak beltzak baina
zuriak sermoiak
Loiolan zer lohiak
Kristoren morroiak

Urolako lohietan
kli-klu kli-klu kli-klu
horra santu batenak
gaur zenbait meritu
Inaziok baditu
beste hainbat kli-klu

1998

Musika: Joseba Tapia

BOLUETA-SESTAO 06.13

hurrengo geltokia...
Piccadilly Circus!
hurrengo geltokia...
Újpest-Városkapu!
hurrengo geltokia...
Alto dos Moinhos!
hurrengo geltokia...
Bronx!
hurrengo geltokia...
Otemachi-Nihombachi!
hurrengo geltokia...

hurrengo geltokian
jaitsiko naiz
agian
galtoki egokian

hurrengo geltokia...
Arco di Travertino!
hurrengo geltokia...
Nádra(omega)í Hole¼ovice!

hurrengo geltokia...
Alexanderplatz!
hurrengo geltokia...
Rivadavia y Larrea!
hurrengo geltokia...
Komsomólskaya koltsevaya!
hurrengo geltokia...

hurrengo geltokian
jaitsiko naiz
agian
galtoki egokian

hurrengo geltokia...
Passeig de Gracia!
hurrengo geltokia...
Ethniki Amyna!
hurrengo geltokia...
Place de la Bastille!
hurrengo geltokia...
Forskningsparken!
hurrengo geltokia...
Chapultepec!
hurrengo geltokia...

hurrengo geltokian
jaitsiko naiz
agian
galtoki egokian
mundu erdiaren jabe
jaitsiko naiz
agian
ipurdia altxatu gabe

2004

WILLIAM DRURYREN BALADA

balada bat kantatzen behar dut nik hasi
Tidworth-eko kartzelan zer nuen ikusi
enkargatu zidana orai ez da bizi
aztia zelakoan zuten errarazi

Inglaterra handia itsasoaz harat
leku makurragorik munduan ez da bat
musikariak ditu hartzen matxinotzat
nor ibili da jotzen eskusoinua bart?

William Drury daukat nik ponteko grazia
mundura sortu eta Irlandan hazia
eskusoinua jotzen umetan hasia
makina bat herreni dantza arazia

Lord Hamilton jauna da buruz iletxuri
epaia emateko ez dago urduri
hauspoa kendu eta giltzapera Drury
soinularia zuten soinu gabe utzi

non jo ez neukan eta hotzak atzamarrak
lasto gainean lagun nituen kaparrak
ez du giro izaiten hantxe irlandarrak
dorrean jo zituen ezkilak hamarrak

hamarrak jo orduko soinuak zuen jo
Druryk bezperan baino askoz ederrago
gaua pasa genuen kantu eta txalo
ingles haiek ordea nagi dantzarako

Tidworth-en denek zuten erraiten ai ene
Lord Hamiltonek eta Lady zaharrak ere
soinua omen zela soinuen errule
ene hauspo ttipia plazan zuten erre

musikarik gabeko gaua da tristea
zailago dute orai begiak ixtea
sorginduak daudela dator albistea
han ere bazeukaten horren sinistea

hauspoa suntsituak bere pena zor du
uste dut betirako zaretela gortu
moztasun triste honen erantzuna nork du?
nik ez dut ezer sortzen soinuak nau sortu

bakea nahi zenuten soinu hori errez
Tidworth-en egiten da justizia errez
maluren eztigarri musika da berez
lo eginen duzue baina ametsik ez

Lord Hamiltonek zeukan bihotzari esker
soinularia sutan dantzatu zen laster
aztia zelakoa ez zegoen oker
Druryk apo txipi bat egin zuen poker

Tidworth-eko herria zer herri isila
mutua dago beti dorreko ezkila
soinuak bereizten du bizia ta hila
inglesak ikaratzen Drury zen mutila

1998

Musika: Joseba Tapia

IXO!

ba euria ari zuela
eta galduak ginela galduak ginela mendian
—hotz!—
beldurgarria zen gaua
—beltz!—
eta horra orain ipuin barregarria:

erantzi nuen larruazala
kremaileran irekiz lepotik behera
—tximist!—
eta harekin egin nizun oihal-txabola bat
ez zintezen busti

atera nuen bihotza eta gora nuen jaurti
bengala berde bat zen ahapetik oihuka:

ixo! ixo! ixo!
alaba daukat lo!

atzamarrak eten
eta txotxetan txikitu nituen
—otx!—
su handi bat pizteko neure ahoan

orduan heldu zen otsoa
—isil!—
eta mendiko ardiak jan zituen
ezkilak eta guzti

ixo! ixo! ixo!
alaba daukat lo!

1988

HAMALAU URTE

igandeetako asperdura...
zenbat arratsalde!
baforeek uhinek denek
zioskuten:
alde!
alde!
alde!

arratsaldeko tristura
igandez igande...
ontzia badoa farolapean
hantxe gu arrantzale
hogei braza beherago
arrainek...
barre!
barre!
barre!

baina itsas-lamiek
—a, itsas-lamiek!—
haiek bai gintuztela
maite...

ezkataz eginak geunden
burutik oinetaraino

2005

HAN

han
zure mundua ez da erresuma hartakoa
han
non ahantzi egiten den non ahantzi ezin den
non itsasoa margotu egiten den
non bakarrik egoten den
non bakarrik ezin egoten ahal den
non katuak diren libre non hil egiten den
non adiskideak non hitzak non maitasunik non
non loa eta ametsa ez diren bat
non ikasi egiten den non idatzi egiten den
han
non non zaudeten badakizuen
non poetak ez dauden preso Rimbaudi tiro
emateagatik
non ateak ixteko diren non bisitak ametitzen
dituzten
non harresiak zikoinek iragaiten dituzten
non mutu ez non damutu ez
non baina non beti non eustea bera den haustea
non ihes egitea ez den ihes egitea

non duintasuna zigorrean neurtzen den
non kilometroak non mehatxuak non noiz
non jipoituak non hala ere
non errotek urik behar ez duten
non nik diodan
han
non han zaudetenak gu zareten
non gu ez gauden
han
non zuk diozun hemen
han
non zuk diozun ni ez naiz hemengoa

1989

Musika: Fermin Iraola eta Dani Ulazia

ERBIEN OMENALDIA
MATEO SOINURI

meza kantari
aintza Jaunari
Mateo zintzo lanean ari
zaunka entzunda
—Fusila nun da!
abiatzen da erbi ehiztari

Mateo Txistu
ez da obispu
badaki hartzen zenbait arrisku
ehizatu orde
erbia gorde
askatasunak behar anitz du

zaunka eta galde
dena debalde
ehizak egin baitie alde
zakurrek dute
inondik uste
Mateo dela erbien alde

inoiz Carmonan
gero Zamoran
gizona txehetzen duen errotan
Mateo apaiz
erbitarra haiz
ez haute asko maite Erroman

erbiak badu
izter ‘ta larru
Mateok ere zerbait behar du
Trentoren aurka
sotana urka
guraso berri urtea barru

herria zertan
Mateo bertan
ikasi berri duen mezetan
inoiz Laus Deo
sarri ateo
mezetan baino hobe lezetan

gure hauspoa
bada nork joa

ez badizute mozten besoa
maite zaitugu
Mateo Soinu
aitasantua’n seme gaiztoa

1999

AZKEN HONDOKO TABERNAN

azken hondoko tabernan edaten dut
azkenondokoak garela dakienaren soseguaz
suntsituen hezurrak berbatzen diren artean
inperioaren aurka poesia baliatu behar dugula
uste duten nire antzeko inozoak bilatzen ditut

joanean datorren amorante ukatua naiz
saritzat emandako maitasuna ez da maitasuna
ez nuke ostrukatu nahi ardo amniotiko batean
eta poesia gure borroka bera denik
uste ez duten nire antzeko inozoak bilatzen ditut

preso makilatuak zuhaitza salatzen duen bezala
erakusten du zauriak geziaren gramatika
baina sakrifizioak ez du Jainkoa frogatzen
martiri batzuk beren fedea baino ederragoak direla
uste duten nire antzeko inozoak bilatzen ditut

autokritika eskatzen dut ez oinazearen mistika
ahularen kemenak urrikia sor badezake ere
jokamolde duin baten ordain datza erdi bi egina bou zaharra
munduak gu ez maitatzeko eskubidea duela
uste duten nire antzeko inozoak bilatzen ditut

hezurrari grina erantsi nahi dion inozoa naiz
akelarrea antolatuko nuke Gernika erraustu berrian
euskaldunek hondoratu duten euskalduna naiz
sasiko amoranteen hilerri honek beste alderik ez duela
uste duten nire antzeko inozoak bilatzen ditut

ez iezadazue galde nola iritsi nintzen hona
haginka utzi ninduten liburuek haragirik gabe
odolaz idatzi behar nuen azken esaldi hura
asmatu baino lehen geure buruaz besterik ezin dugula
uste duten nire antzeko inozoak bilatzen ditut

nire antzeko inozoak bilatzen ditut
azken ondotik lehentasun berri bat sortuta
uhin egin ahal izateko errealitatera

poesiak bakarrik salba dezake Berlin
Berlinek bakarrik salba nazake ni

1997

Musika: Jexuxmai Lopetegi

LAGUN GALDUAREN GEOGRAFIA

Andoni eraman zutenez gero
ez dut ikusi nahi Zarautz
hondartza basamortu ez ote
euri gozoena errauts

Andoni eraman zutenez gero
ez dut maite Atharratze
bortua kopla xirula dena
dena egiten zait atze

Andoni eraman zutenez gero
zertan bisita Gatika
kafe gazitan urtua dago
euskararen gramatika

Andoni eraman zutenez gero
mingarri zait Miarritze
buruan mailuka zazpi mailu
oinetan zazpina iltze

Andoni eraman zutenez gero
ez dut bidean Dulantzi
lagunik gabe naizelako zait
oinez egiten ahantzi

Andoni eraman zutenez gero
ez dakit non den Bidarrai
laguna galdu duen harentzat
bideak alferrik darrai

Andoni eraman zutenez gero
mapan puntu bat Zangotza
beti daukat aitzakiaren bat
beroa ez bada hotza

Andoni eraman zutenez gero
nork benedika Garazi
munduko plaza guztiak ditu
zulo batek iragazi

Andoni eraman zutenez gero
gorroto dut Donostia
nekez higatuko dut nik hango
espaloietan oskia

Andoni eraman zutenez gero
hor dago nonbait Iruña
sutara bota nuen haserre
printze onaren ipuina

Andoni eraman zutenez gero
ederrez da zatar Bilbao
hango mahastiek ez dakarte nik
behar dudan beste ardao

Andoni eraman zutenez gero
ez dut nik behar Baiona
hosto bat kendu zaion hitzari
dena da kendu zaiona

Andoni eraman zutenez gero
ez aipa ez aipa Gasteiz
ukatuok hautatuengandik
beti bizi gara bereiz

Andoni eraman zutenez gero
ez dut berriro jo Maule
Andoni eraman zutenez gero
biok bahituta gaude

2003

Musika: Joseba Tapia

BUFO BUFOREN KORROKA

maitasunaren arlote
igelek hala diote
mihi gaiztoek naute bihurtu
apo nintzena apote

bele samaldak artotan
gezurra dabil ahotan
akelarrean ari nintzela
serorarekin apotan

ba omen daukat pozoina
berotzen duena soina
apoa lehertu nahirik jaso du
epaileak bere oina

beltza da gaur gauerdia
sarobean da ardia
torturatuak salatu du nik
jan dudala ilargia

ederrak dira egiak
apoen apokeriak:
nik janen ditut nik janen ditut
Pierre de Lancreren begiak

euriak ezponda busti
apoak egin du jauzi
maiteminduen musikak gozo
isiltasuna du hautsi

mendian sendo arroka
behorra zuzen labroka
William Drury hil zenuten baina
ez da isildu korroka

1998

Musika: Joseba Tapia

NON DAGO BASQUES' HARBOUR

non dago Basque's Harbour
galdetzen badut
ez da mapa bat ekar diezadazun

non dago Basque's Harbour
galdetzen badut
ez da galdu egin naizelako

non dago Basque's Harbour
galdetzen badut
ez nabil portu bila

non dago Basque's Harbour
galdetzen badut
zinez mintzo naiz baina

non dago Basque's Harbour
galdetzen badut
ez dut erantzunik behar

non dago Basque’s Harbour
galdetzen badut
ez baitut galdera bat egiten
galdetzen badut
non dago Basque’s Harbour
non dago Basque’s Harbour

1997

ETORBIDE PROFESIONALA

Zenbat trikiti zenbat fandango
zenbat pasodoble jo dudan nik
ezker eta eskuin esku eta zango!
zer ez dut nik jo?
txaloak gaiztotzen du harroa
baina sekula ez dut jo
ez dut jo sekula jotakoa

mila mandio mila teilape
mila taberna alaitu ditut
bete eta hutsik hutsik egin gabe!
non ez dut nik jo?
zoko guztietan jo dizut nik
baina sekula ez dut jo
ez dut jo sekula pulpitutik

jotzen dut uda jotzen dut negu
egunero naiz jo beharrean
soinuak estu ninduen heldu
noiz ez dut nik jo?
giro sortzen zenbat ibilera
baina sekula ez dut jo
ez dut jo sekula epelera

zenbat trikiti zenbat fandango
zenbat folk eder joko dudan nik
zenbat egia eta gezur esango!
nola ez dut joko?
joko dut zoli joko dut grabe
baina inoiz ez dut joko
ez dut joko inoiz jotze alde

ezintasunak joko nau baina
orduan ere joko dut bero
saiatuko naiz tentatuz gero
nola ez dut joko?
dardara batean naiz jarriko
baina inoiz ez dut joko
ez dut joko inoiz belauniko

joko dut karu joko dut merke
eta ez daukanak behar banindu
joko dut pozik, pozik musu eske
nola ez dut joko?
joko dut hauspoak eman arte
baina inoiz ez dut joko
ez dut joko inoiz maite ez banaute

2005

Joseba Tapiarekin idatzia

Musika: Joseba Tapia

HARK

beldurtuko gaitu hezurrez hezur
lotsa ez gaitezen
elkar biluz dezagun urtzeraino

urtuko gaitu bihurrez bihur
lotsa ez gaitezen
elkar uler dezagun biluzteraino

biluziko gaitu beldurrez beldur
lotsa ez gaitezen
elkar bihur dezagun ulertzeraino

apurtuko gaitu zuhurrez zuhur
lotsa ez gaitezen
elkar makur dezagun hurbiltzeraino

hurbilduko gaitu gezurrez gezur
lotsa ez gaitezen
elkar apur dezagun zuhurtzeraino

urrunduko gaitu malurez malur
beldur ez gaitezen
elkar maita dezagun lotsatzeraino

1997

Musika: Francisco Garcia Alvarez

KONTZIENTZIAREN HARTZEA

Eastbourne ez dago Irlandan
eta faro ingeles bat izan litekeen bezain burgesa da
Eastbourneko faroa
ez du haren beharrik izanen gure ontziak
baina hala ere kantu bat merezi du
Eastbourneko faroak
haren oinarrian jotzen dutenak
errautsezko olatuak dira

Eastbourne ez dago Galesen
eta Engels ingeles bat izan litekeen bezain burgesa
zen
Friedrich Engels
faro batek adina baizik ez zuen ikasi itsasoaz
baina hala ere kantu bat merezi du
Friedrich Engelsek
Eastbourneko faroan jotzen dutenak
haren errautsak dira

Eatsbourne ez dago Eskozian
eta itsaso ingeles bat izan litekeen bezain burgesa
da
Eastbourneko itsasoa
mendebalak ez daki harrotzen bare da beti hemen
baina hala ere kantu bat merezi du
Eastbourneko itsasoak
hemen jotzen duten errautsak
Engelsen manifestua dira

Eastbourne ez dago Bretainian
eta olatu ingelesak izan litezkeen bezain burgesak
dira
Eastbourneko olatuak
menturaz ez dute faroa inoiz suntsituko
baina hala ere kantu bat merezi dute
Eastbourneko olatuek
etengabean jotzen dute
Engelsen errautsak balira bezala

Eastbourne ez dago Euskal Herrian
eta errauts ingelesak izan litezkeen bezain burgesak
dira
Eastbourneko errautsak

ez dira inoiz berriro sutuko faro egitearren
baina hala ere kantu bat merezi dute
Eastbourneko errautsek
olatutan antolatu dira
itsaso bat direla balekite bezala

1997

ENE SOEK

ene soek
beti
amets berbera
biltzen dute
bihotz-zakuan

ene soek
beti
forma berbera
laztantzen dute
ametsezko hitzetan

ene soek
beti
hutsune berbera
fusilatzen dute
ametsaren kontra

1974

Musika: Peio Serbielle

WAFA

Wafa Idris in memoriam

Oliba mikatza izanda
nahi zenuke gozoan
gozotasun horregatik
maite zaitut osoan

kufiya lepoan
horra zein gazte doan
Wafa! Wafa! Wafa! Wafa!
sua bihotzondoan

kufiya lepoan
horra zein heldu doan
Wafa! Wafa! Wafa! Wafa!
sua bihotzondoan

pikondo errea izanda
nahi zenuke hostoan
hostotasun horregatik
maite zaitut osoan

kufiya lepoan
horra zein astun doan
Wafa! Wafa! Wafa! Wafa!
sua bihotzondoan

kufiya lepoan
horra zein arin doan
Wafa! Wafa! Wafa! Wafa!
sua bihotzondoan

mahasti zapaldua izanda
nahi zenuke mulkoan
harrotasun horregatik
maite zaitut osoan

kufiya lepoan
horra zein apal doan
Wafa! Wafa! Wafa! Wafa!
sua bihotzondoan

kufiya lepoan
horra zein harro doan
Wafa! Wafa! Wafa! Wafa!
sua bihotzondoan

etxe apurtua izanda
zutik zaude ukoan
osotasun horregatik
maite zaitut osoan

kufiya lepoan
horra zein lerden doan
Palestina! Palestina!
sua bihotzondoan

kantuz naramala
hautsia du hegala
Palestina! Palestina!
erdiminez Ramallah

2002

Musika: Joseba Tapia

MENDEKUA

elurra ezagutu ez duen teilatua
izarrek greba egin duten gaua
arbela beltza dela
umearen aurrean!

—ireki begiak!

arbela beltza dela
umearen aurrean!
ezkutatzeko balio ez duen leizea
biderik gabeko makadam puska

—hartu klariona!

tximista berde bat
atzo
osabaneko bide bazterrean

—ez dakizu?

ispilu itsua
umearen aurrean
hor ezin ditu ikusi
bere hatzak botoien gainean

muskerra zen
osabaneko bide bazterrean!
        alderik alde
muskerra da
arbelaren hutsean...

        —etorri hona!

muskerra
arbelaren hutsean
        alderik alde
tximista berde
ilunpeko botoiak sakatzen
do
                re   fa
                                                la
lau-pataka
do
                fa   la
                                                re

tximista berde
maisuak aditzen ez duen
porrusalda

zure hipotenusa
eta Napoleon!
nik ere ikasiko dut
nik ere ikasiko dut
jotzen!
egon
egon...!

2004

AMERIKAREN KONKISTA EZINEZKOA GERTATZEN BADA ERE KONTSOLAGARRI

Alcatrazko ziega berdetik
ez da itsasoa ikusten
ito behar duenak hau du
itsasoaren hurren

Alcatrazko ziega berdeak
leihorik ez baitauka
kondenatuaren ihesa
beti da hondorantza

Alcatrazko ziega berdean
aulki bat ez besterik
borreroaren bihotz ona
frutaz dago beterik

Alcatrazko ziega berdean
ume batek nahi du hil
almendra mikatzak usnatuz
itsas ordeko lurrin

Alcatrazko ziega berdean
umea lainoz laino
euri azido batek dakar
kantua ontziraino

Alcatrazen aspaldi zuten
kartzela itxi baina
han daukagu beti zabalik
ziega huts berde bana

1997

NIRE EUSKALTASUNA

nire euskaltasuna baso bat da
eta ez du zuhaitz genealogikorik

nire euskaltasuna dorre bat da
eta ez du Alostorrerik

nire euskaltasuna bide bat da
eta ez du zaldizkorik

nire euskaltasuna lore bat da
eta ez du aldarerik

nire euskaltasuna itsaso bat da
eta ez du almiranterik

nire euskaltasuna liburu bat da
eta ez du sotanarik

nire euskaltasuna mundu bat da
eta ez du Amerikarik

nire euskaltasuna bertso bat da
eta ez du txapelik

nire euskaltasuna bekatu bat da
eta ez du mea-culparik

1986

Musika: Imanol

LANGUE ET CIVILISATION FRANÇAISES

Zubirik ederrenak ura du egarri
Paris aileza Senak laztan harriz harri

entzun ezazu Villon zer dioskun urak
biltzen direa inon inoizko elurrak?

Robespierrek lepotik isuri du Sena
itsaso da geroztik ibai izan zena

geroak izanari hartuko dio gain
elurrak biltzen dira maitasunaren zain

zubipetik bagoaz Komunako hilak
uraren abaroaz maitale sotilak

belaunetaraino da Sena odolarri
zubirik ederrenak hura du egarri

1997

TEILATUKO LIZARRA

horra etxe honen armarria
noblea noblerik bada
nekez ihartuko den garra
teilatuan du jarria
teilatuan du jarria
lizar abarra

arratsaldean dute ekarri
oihanetik karrikara
hosto txikien ikara
teilatuan da kantari
teilatuan da kantari
lizar abarra

gaur eginen dute bizkar-besta
ez da ohitura zabarra
biba langile zaharra
teilatuan da ameska
teilatuan da ameska
lizar abarra

etxe hau ezin liteke lotu
eten egin du amarra
badaki non den iparra
teilatuan du pilotu
teilatuan du pilotu
lizar abarra

badoa ontzi piraten artera
utzirik lehor zatarra
nork hautsi horren oldarra
teilatuan du bandera
teilatuan du bandera
lizar abarra

ez bedi gal inoizkotan
etxe berrian lizarra
umetzen nauen zirrara
teilatuan dut hostotan
teilatuan dut hostotan
amets abarra

2006

KATU HAUNDIXA

gauaren katu haundixa datorrenean
nik defendatuko zaitut
begixak atera nahi badizkizu
maite nauzun ala ez galdetu gabe
defendatuko zaitut nik

eta gauaren katu haundixaren atzetik
zakur amorratuak baldin badatoz
zure bila
nik defendatuko zaitut
atera irtenen natzaie ez dezaten amil
eskuok jaurtikiko dizkiet zaunka ez egiteko
hezurrotan dezaten gosea berdin

maite nauzun ala ez nauzun
defendatu eginen zaitut

ez zaitzaten iratzar zu hemen

ala ez nauzun maite

zure begixen lumek
osatuko naute

1989

AGIRRETARREN BANDERA

agirretarren bandera
hartu zuten hankapera
gure ametsak bota zituzten
errekan behera
ikusirikan galera
askok egin zuten atzera
ezin omen da poza ekarri
minduen aldera

herdoildu zen igitaia
paretan zegoen laia
nonahi eta beti lanturu bera
hilen kanpaia
agirretarrak du gaia
iratzar dadin garaia
harro sutzen da guk bihotzean
daukagun ardaia

agirretarrak zer garen
esango dut hirugarren
zutik irauten saiatzen gara
erori arren
ez bagabiltza azkarren
ez da gaudelako herren
munduko zoro guztiak gara
lagunak elkarren

agirretarren bandera
fusilatuen kantera
gure asmoak oraindik dauka
zaila tankera
goitik doa hegabera
basa-izarren artera
derrotatuak ez du bildu nahi
inoren mendera

* * *

Araotzeko agote
urre-goseko arlote
bizio zikin guztien fama
egin diote

ez dakienik ba ote
agirretarra zen Lope
librotasuna ukatzen zuten
erregeen traidore

badakit agirretarrak
eta antzeko belarrak
laster garela mundu hontatik
jorra beharrak
librotasunaren garrak
sortu ohi ditu negarrak
horiek denak dirade gure
labeko kedarrak

1995

Musika: Bixente Martinez

LAFAYETTEREN KOPLAK

Hernan Cortes gaur lotua dago
portu erdiko buietan
Hernan Cortes gaur lotua dago
portu erdiko buietan
inperioaren oroimena du
harrotzen masta goietan

alarma joko du zentinelak
—Etsaia dator abaor!
alarma joko du zentinelak
—Etsaia dator abaor!
gerlaontzi bat umeak baitu
itsasoratu jostakor

gure ontzira egin dute su
haren zazpi kanoi beltzek
gure ontzira egin dute su
haren zazpi kanoi beltzek
kanoiek baino gehiago naute
beldurtzen nire ametsek

erraz mozten du gure papera
Hernan Cortesen ezpatak
herraz mozten du gure papera
Hernan Cortesen ezpatak
nire ontziaren puskak ziren
arrain berrien ezkatak

nire portuak herria zuen
kaietan egin langile
nire herria portuak zuen
kaietan egin langile
grebara deika dabil haizea
bandera denen garaile

haizeak Txileko fosfatoa
zakar sartzen du begian
haizeak Txileko fosfatoa
zakar sartzen du begian
isil-batzarra dute peoiek
hirugarren biltegian

alferrik dute jaurti ontzitik
amarratzeko txikota
alferrik dute jaurti ontzitik

amarratzeko txikota
aho batean erabaki da
Hernan Cortesi boikota

ederra baita elkartasunak
ematen duen ikara
ederra baita elkartasunak
ematen duen ikara
gure portutik abiatu zen
Lafayette Amerikara

nire herriko gazteak doaz
portutik mundu osora
nire herriko gazteak doaz
portutik mundu osora
Lafayette berriz txalupa bete
gauero da itsasora

1997

REAL POLITIK

entzun ezazu kontzejal jauna edo anderea
badakizu dakizunez
nazkatu gara ogi lizunez
ez dugu nahi gosaldu albiste ilunez
gure plazan gauero eguzki betea!

berak ezin zuen ezer egin
ez zen bere eskumenekoa
baina ados zegoen gurekin
doan eman zigun bost... ekoa!
ederra zen borroka lurrina
lepokoan zeukan ikurriña

entzun ezazu alkate jauna edo anderea
presa berririk ez arren
ederto goaz azkengarren
ez zaigu ardura berandutu arren
bareari berea, hori da legea!

berak ezin zuen ezer egin
ez zen bere eskumenekoa
baina ados zegoen gurekin
doan eman zigun bost... ekoa!
ederra zen aberri lurrina
balkoian zeukan ikurriña

entzun ezazu sailburu jauna edo anderea
ez dugu maite ardaila
bihar joko dugu bataila
Goliatek proba dezan Daviden habaila
handiak txikitzea da gure xedea!

berak ezin zuen ezer egin
ez zen bere eskumenekoa
baina ados zegoen gurekin
doan eman zigun bost... ekoa!
ederra zen ikara lurrina
paparrean zeukan ikurriña

entzun ezazu lehendakari jauna edo anderea
herriak zuri emana
ez baita nolanahiko zama
hartzen dituzun lanak ditzagula bana
zuretzako botoa guri boterea!

berak ezin zuen ezer egin
ez zen bere eskumenekoa
baina ados zegoen gurekin
doan eman zigun bost... ekoa!
ederra zen haserre lurrina
bihotzean zeukan ikurriña

entzun ezazu jaungoiko jauna edo anderea
zugana gatoz itsuan
mundu triste honen izuan
zenbatean etxeak hor paradisuan?
zure artaldekoa da euskal aberea!

berak ezin zuen ezer egin
ez zen bere eskumenekoa
baina ados zegoen gurekin
doan eman zigun bost... ekoa!
ederra zen gezurren lurrina
hodeietan zeukan ikurriña

entzun ezazu deabru jauna edo anderea
gozamenaren azkura
aspaldi zeharo galdu da

hemen behar dena da zure diktadura
parrilan erretzeko kristoren jendea!

berak ezin zuen ezer egin
ez zen bere eskumenekoa
baina ados zegoen gurekin
doan eman zigun bost... ekoa!
ederra zen porroten lurrina
errautsetan zeukan ikurriña

2005

Musika: Joseba Tapia

PUTZU GUZTIEK DUTE HONDOAN APOA

Parisko jauregiek behar dute Sena
Versallesko putzuek bezala apoa
Komunako iraultzan gorri izan zena
okerka dabil orain herren du zangoa

Luisianako lurretan dator Mississippi
ibai hori begitik sortu du apoak
zuri ez delako ta badelako ttipi
Kukluxklanen bisita dauka gizajoak

Kazan hiritik zabal pasatzen da Volga
popeak agurtu du ostikoz apoa
kosako zuri denak daitezela olga
pikutara joan da sobieten aroa

ai mundua betea ez balego apoz
nork emanen lioke bizitza honi poz?
penak uxatzen ditut eskusoinua joz
nahiago baitut bizi ahuspez baino hauspoz!

Lisboako zubiak edertzen du Tejo
Pessoa lagun zaharra bildu du apoak
tabernara kantari zabuka dute jo
poetarik onena ontzen du ardoak

London aberasteko dago Tamesia
ate denetan jo du lan-eske apoak
Robin Hoodek aspaldi hautsi du gezia
orain beste beso bat behar du arkoak

Al Kairo zikin hartan isurtzen da Nilo
Alaren urrikia otoi du apoak
pobre sortu den horrek inon ez du giro
bihar lehertuko ahal du Aliren autoak

ai mundua betea ez balego apoz
nork emanen lioke bizitza honi poz?
penak uxatzen ditut eskusoinua joz
nahiago baitut bizi ahuspez baino hauspoz!

Buenos Airesen bada Rio de la Plata
bazter hartatik dago oihuka apoa
ura badauka baina zilarra du falta
Piazzolak bezain triste jotzen du tangoa

Baionan itsasora zabalik Aturri
hemen ere bizitzen lan dauka apoak
egalitatez labur libertatez urri
ez baitira zilegi hark dauzkan asmoak

Amazonas Danubio Ganges Po Zanbezen
mundutxo hau denean oso txarto doa
baina ez dezagun gal esperantza ezen
putzu guztiek dute hondoan apoa

ai mundua betea ez balego apoz
nork emanen lioke bizitza honi poz?
penak uxatzen ditut eskusoinua joz
nahiago baitut bizi ahuspez baino hauspoz!

1998

Musika: Joseba Tapia

ARITMETIKA ARAZOAK

Zenbat lurralde ditu
gaur Euskal Herriak?
Euskadik adina bai
balitu erdiak!

zenbat euskaldun ditu
gaur Euskal Herriak?
ez lirateke gutxi
balitu erdiak!

zenbat aditu ditu
gaur Euskal Herriak?
ez ote luke hobe
balitu erdiak?

zenbat aurkari ditu
gaur Euskal Herriak?
herritarreko bosna
balitu erdiak!

zenbat maitale ditu
gaur Euskal Herriak?
erruz maitatu izan
balitu erdiak!

zenbat bekatu ditu
gaur Euskal Herriak?
ez luke barkamenik
balitu erdiak!

zenbat gobernu ditu
gaur Euskal Herriak?
behar baino gehiago
balitu erdiak!

zenbat arazo ditu
gaur Euskal Herriak?
asko samar oraindik
balitu erdiak!

zenbat galdera ditu
gaur Euskal Herriak?
nahiago nuke bihar
balitu erdiak!

zenbat erantzun ditu
gaur Euskal Herriak?
ai hobeki pentsatu
balitu erdiak!

2002

Musika: Joseba Tapia

NEURE ESKUA

neure eskua
beste esku batetan grapaturik
izerdi bakarra jaso dezan
ala
surtarako dut

neure besoa
bizkar bat ingura dezan
ala
erauzteko

neure ahoa
egiari hegoa zabal diezaion
ala
adreiluz tapiatzeko

neure begiak
(denok espero dugun) egunaren ilunabarrean
negar egin dezaten
ala
gauak eramateko

neure bularra
zure ametsaren burua deskantsa dadin
ala
etsipen keak itotzeko

neure bihotza
badakizu
zuretzat
eta
denentzat

1974

MASUSTA GORRI GARRATZA

Zorioneko egun batez
txipia nintzen aroan
bazkalondoko beroan
zorioneko egun batez
umearen aspertua
izebaren lo-kuluxka
zer deskubritu ote nuen
zorioneko egun batez?
sasi artean masusta!

masusta gorri garratza...

zorioneko urte batez
esnatu nintzen mutiko
galdua nintzen betiko
zorioneko urte batez
gauero nuen gogoan
sasi arteko masusta
zer deskubritu ote nuen
zorioneko urte batez?
ametsak dakarren uzta!

masusta gorri garratza...

zorioneko ordu batez
ausartu nintzen sasian
ustez modu ikasian
zorioneko ordu batez
masustez egitekotan
nire aurrenengo bazka
zer deskubritu ote nuen
zorioneko ordu batez?
sasiaren harramazka!

masusta gorri garratza...

zorioneko une batez
ez dakit zenbat urratu
sasian nituen batu
zorioneko une batez
larrutu nuen bihotza
ene bihotz amestia
zer deskubritu ote nuen
zorioneko une batez?
gorriaren garestia!

masusta gorri garratza...

zorioneko uda batez
sasian berde bost orri
pinporta txipia gorri
zorioneko uda batez
laborritan nuen hartu
ezpain artean alea
zer deskubritu ote nuen
zorioneko uda batez?
nintzela gordinzalea!

masusta gorri garratza...

2006

CAMILLE

naturazaleek pentsatu zuten jartzea
Pirinioetan hartza
piztia honek eman ziezaien
benetako mendiaren antza

zientzialariek txip bana ipini zieten belarrian
—mendiei ez, mendiek ez dute belarririk
belarra baizik, eta ez guztiek—
jakiteko nondik nora ibiltzen ziren
non egiten zuten lo, non bazka...

Baina zer egiten dute orain
jakin-ustel horiek?
buruari hazka
Camillek esan zuelako:
—Hau nazka!
Txipari heldu eta belarritik aska!

zoaz, Camille
zoaz gugandik
urrun, Camille!

nahiz zooan edo zirkuan
sortuak edo luzaz egonak izan
abere batzuek ez dute ikasten bizitzen
gizaki zintzoen gisan...
horregatik saiatu behar izaten dute
naturazaleek eta zientzialariek
ihes egindakoaren peskizan
handiak direlako
egiten dituen pikardiak
beldurrak daude ardiak
otsoak eta guardiak
eskopeta hartuta hartzaren ehizan

zoaz, Camille
zoaz gugandik
urrun, Camille!

egunkari guztiek diote
Camille non ote da, ai ene!
haren argazkia egin nahi dute baina
Camille bizi da erne:
hartza da, eta gainera... eme!

zoaz, Camille
zoaz gugandik
urrun, Camille!

Camille!
haizeak ikasi duen abestia
Camille!
Camille!
artzainak ere
artzaina beti baita amestia...
Camille!
zuretzat Auñamendi osoko
erle guztien eztia!

zatoz, Camille
zatoz gugana
gozo, Camille!

artzainari ez zaizkio
ardiak asko inporta
Pirinioetako Printzea da
jauregi du borda...

atean jo dute!

eta artzainak ez du galdetuko nor da

zatoz, Camille!
zatoz nigana
gose, Camille!

2001

ENE HASERREA

eta ene haserrea falta bazaizu
alferrik dira leunak zure begiak
eta ene musua falta bazaizu
haizeak ezpainak hostogabetzen dizkizu
eta ene hitza falta bazaizu
ezin duzu inolaz ere kantatu
eta ene ametsa falta bazaizu
nondik sortuko duzu esperantza
eta ene oroitzapena falta bazaizu
zertarako bakarrik paseatu
eta ene gorputza falta bazaizu
biluzik zoaz

1976

Musika: Imanol

ONE BALLAD FOR THE RAVENS

the ravens of black feathers
the ravens of white pen

eskerrik asko senide onak
poetak luma zuriko
banekien ez ninduzuela
itolarrian utziko
zatozte denok untziko
berriro elkar besarkatzeak
ez nau poztutzen gutisko
zuen eskas egin nuen sarri
nenbilela urrutiko
mendian edo huriko
zuek noiz irakurriko

nork du merezi lumadunetan
poesiaren koroia
ereinotzaren hostoan dabil
belea edo erroia
mihina ez du herdoia

mutuko ahal da behin betirako
erresiñola etoia
gure arraza ez da izanen
bere kantuen morroia
halaxe aitortzen ohi da
beleak jo zuen goia

gora dezadan moko betean
kaiolako ez den kanta
haren berdinik ez du basoak
hasten bagara karranka
ze sinfonia xarmanta
hura bai ezti hura bai eder
hura ez baita marranta
hura entzuteak bihotza hustu
egiten dit tantaz tanta
esaeretan esanda
belea berdintzen lan da

poeta zaharron bizimodua
ez da gauza erosoa
sekulan ere ez zaigu falta
lumakoen erasoa
hau ez da patu gozoa

entzun baldin baduzue inoiz
egin nintzela usoa
sinestazue bele lagunok
gezurra dela osoa
ni ez naiz hain inozoa
belea ez baita zozoa

1989

IKASTEA ETA IKASTEA

nik irakatsiko dizut
atzekoz aurrera irakurtzen
hamar arte zenbatzen
mihia ahosabaian ziztu egiten
nik irakatsiko dizut
harri begidunak jaurtitzen
habiak ezkutatzen
zinezko gezurrak esaten

baina egun zoaz eskolara

nik irakatsiko dizut
esna zaudela hegaldatzen
putzu txipian itotzen
sagarrak eta sagarrak bereizten
nik irakatsiko dizut
azterketetan kopiatzen
tinta izerditzen
nire sinadura itxuratzen

baina egun zoaz eskolara

nik irakatsiko dizut
txoritan ibiltzen
jotzen duten doinuan ez dantzatzen
hankak baino burua arinago izaten
nik irakatsiko dizut
Eiffel dorrea askatzen
lotsatu gabe galdetzen
ikasitakoa ahanzten

baina egun zoaz eskolara

nik irakatsiko dizut
berba zatarrak esaten
hormetan idazten
hanka plateran sartzen
nik irakatsiko dizut
iltzeak oker sartzen
eta zeure atzamarra mailuka lehertzen
nik irakatsiko dizut
ez dakidan gitarra jotzen
ni bezalakoa ez izaten
nik irakatsiko dizut
dena kolokan jartzen

baina egun zoaz eskolara

bihar bihar piper egiten
irakatsiko dizut bihar
Greziako uharte txipi batera
joanen gara bizikletan
eta zuk Arkimederen teorema
irakatsiko didazu zuk
ni arduragabekeria hutsean
hondoratzen naizela ni

1991

EZ ZAITUT GATIBU NAHI

ez zaitut gatibu nahi
gatibu nahi ez baitut

ni gatibu nadukana gatibu da besteren
ni gatibu nadukana gatibu da besteren
ezin du nigana
zaila da libre izaten librea izan baino lehen

zaila da libre izaten librea izan baino lehen
ez zaitut gatibu nahi
gatibu nahi ez baitut

laztan zaharren gomuta inoiz ez da laztana
laztan zaharren gomuta inoiz ez da laztana
baizikan laztura
ahaztu gabe dut ahaztua zure eskuen laztana

ahaztu gabe dut ahaztua zure eskuen laztana
ez zaitut gatibu nahi
gatibu nahi ez baitut

maitasunaren oroitza ez baita maitasuna
maitasunaren oroitza ez baita maitasuna
baizikan asuna
ez dut berriro ikasi nahi bakardadeko otoitza

ez dut berriro ikasi nahi bakardadeko otoitza
ez zaitut gatibu nahi
gatibu nahi ez baitut

1992

Musika: Anton Latxa

SORGINAREN ZURGINA

Zer ote dakar berri
ontziak portura
sorginaren zurginak
behar duen zura

Libanoko zedroa
Norteko haritza
ez ahal zaizu ahaztuko
emandako hitza

zuretzat jasoko dut
etxe bat egurrez
munduari bisita
egiteko urez

zuretzat josiko dut
kadira bat txotxez
sua piztu dezazun
zaudenean hotzez

zuretzat jarriko dut
ohe bat abarrez
biok bertan etzanda
egiteko amets

trintxa mailu eskoadra
zerra eskobila
zurginaren sorgina
dena da txirbila

2002

ZURE BEGIETAN

Zure begietan
urratu nuen
goiza

zure bularretan
lurperatu nuen
eguzkia

zure hortzetan
hozkatu nuen
haserrea

zure hitzetan
gorde nuen
poema

zure soinean
galdu nituen
eskuak

zure ezpainetan ahantzi nituen neureak

1976

Musika: Peio Serbielle

ERABAKIA

a, sarearen zarata!
saltegiko sarearen zarata!
sarearen zarata saltegia zarratzean!

husten dira bulegoak
betetzen dira autobusak
ez dabil inor karriketan
helikopteroak ere erretiratu egin dira
ilargiak salatuta

a, sarearen zarata!
saltegiko sarearen zarata!
sarearen zarata saltegia zarratzean!

bizitzen hasteko tenorea da
esaten digute saltegiko sareek
gillotina bezala jaisten direnean
gure burua
beti lehengo lepotik eduki ez dezagun

a, sarearen zarata!
saltegiko sarearen zarata!
sarearen zarata saltegia zarratzean!

sua eskatuko diot
aurrena topatuko dudan oinezkoari
ez dut erretzen
baina bizitzen hasteko tenorea da
besteren lepotik

a, sarearen zarata!
ordua ere kenduko diot

2005

LAGUN ZAHARRA

Zakarkeriarik gabe joko du atean
baina nik aurrerakoa agindu baino lehen
sartuko da lasai deitu ez dioten gelan
hi al hintzen?

hi al hintzen?
amaitu da kreditua eginen dit agurra
gezur damuan, sentituko balu bezala
pobrearen poza beti izaten da laburra

hi al hintzen?
ez diat dei egin baina ez nauk haserretuko
zenbat dudan maitatu zenbat maitatu nauten
oheko izaretan dauzkak zimurrak lekuko

ez ditiat alferretan bota hainbat neke
kreditua amaitu zaidak baina hik behintzat
ez nauk ikusiko zotinka mailegu eske

entzungor eginik zabalduko du armairua
nire pilda higatuak maletan sartzeko
luze hoztuko da egun horretako apairua

aizak hi, uztak mesedez hor bertan arropa
bidaiarako aski diat kopa bete azken
eta buruan dauzkadan hiru mila kopla

hi al hintzen?
bai, heu izanen haiz... zabalduko duk atea...
goazen jauna, zu aurrena, bai, hemendik duzu...
eta ez zaidak ahantziko eskupekoa ematea

hi al hintzen?
heu izanen haiz, bai... eta munduan behera
munduan behera joko diat harro plantan
hi lagun zahar bat bahintz bezain barkabera

2006